

ERAKUNDE ARTEKO AKORDIOAREN SEGIMENDUKO
ETA EBALUAZIOKO TXOSTENA 2002

segimendu-batzordea

Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko akordioa (2001eko urriaren 18an onartutako akordioa) bosgarren hizbaketako e) paragrafoak ezartzen duenez, erakunde izenpetzaileek, ekitaldi bakoitzaren bukaeran, akordioaren edukien betetze-mailari buruzko segimenduko eta ebaluazioko txosten bat egin beharko dute.

Dokumentu honek testu batean eta modu ordenatuan jaso nahi luke erakunde izenpetzaile bakoitzak egin dituen segimenduko eta ebaluazioko txosten partzialetan biltzen den informazio guztia, aukera izan dezagun akordioan ezarri ziren konpromisoen eta jarraibideen betetze-mailari buruzko ikuspegi orokorra edukitzeko.

Akordioak berak ezarritako irizpideari jarraiki, dokumentu hau bi zatitan banatuta dago. Alde batetik, lehenengo zatian, erakunde izenpetzaileek 2002an zehar burutu dituzten ekintzak aipatzen dira, Akordioaren Jarduera-Protokoloan¹ jasotzen diren neurriak eta jarraibideak benetan aplikatu diren ziurtatzeko ekintzak, hain zuzen. Horretarako egiten diren aurreikuspenak zenbateraino bete diren ezagutzeari begira, komeni da Segimendu Batzordeak 2002ko maiatzaren 14an onartu zuen dokumentua kontuan hartzea: *Erakunde arteko akordioa (2002) zabaltzeko eta abian jartzeko neurriak*. Izan ere, bertan aurreikusten dira 2002an zehar erakunde izenpetzaile bakoitzak burutzeko asmoa zuen neurriak.

Bestalde, txosten honek bigarren zati bat ere badauka. Bigarren zati horretan hitzez hitz jasotzen da erakundeek beren txosten partzialetan egin duten balioespena (bakoitzari dagokion jarduera-eremuan, jarduera-protokoloaren betetze-mailari buruz egiten duten balioespena, hain zuzen)².

Vitoria-Gasteiz, 2003ko maiatzaren 14a

¹ Ez dira sartzen Eudel/Euskal Udalen Elkartek burututako ekintzak, ez baitio igorri erakunde horri dagokion segimenduko eta ebaluazioko txostena akordioaren segimendu-batzordeari.

² Ez dira sartzen Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren, Eudel/Euskal Udalen Elkartearen eta Euskadiko Sendagile Elkarteko Nagusiaren balioespenak, ez baitituzte igorri segimendu-batzordera.

A) BURUTUTAKO EKINTZAK

LEHENDAKARITZA

Emakunderekin batera, erakunde arteko **akordioaren 3.500 ale argitaratu** ditu.

Lehendakariak **aipamen eta erreferentzia** esplizituak egin dizkio emakumeen kontrako indarkeriari eta akordioari, jendaurreko mintzaldietan: besteak beste, politika orokorreko osoko bilkuran eta azaroaren 25eko oroitzapena dela eta 02-11-19ko Jaurlaritzaren Kontseiluko prentsaurrekoan egin zen berariazko komunikatuan. Era berean, Basaurin emakume bat erail zutela eta, hilketa gertatu zen tokian agertu zen, horrelako hilketak gaitzesteko.

Lehendakaritzak parte hartu du azaroaren 25 dela eta egin den sentsibilizazioko eta informazioko **erakunde arteko kanpainaren** diseinuan eta finantzaketan, bai eta *etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako* **segurtasun-planaren** (2002-2004) lanketan ere.

EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILA

Erakunde arteko **akordioa**, komisaria guztietan **banatu** da, agente guztiek (gizonezkoek zein emakumezkoek) akordio horren berri izan dezaten.

“Harlax” Ertzaintzaren aldizkari teknikoan, akordioaren laburpen bat sartu du, eta ohartarazpen bat helarazi dio ildo berean **“Ertzaintza Gaur”** barne-informazioko egunkariari, 2003an argitara dezan.

Udal-poliziaren eremuan, akordioaren edukiak biltzen dituzten **jarraibideak** edo zirkularrak har daitezen bultzatu du.

Arkauteko Polizia Akademiak hainbat polizia-talderi eman dizkien **prestakuntza-ikastaroetan**, etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak izaten diren kasuetan hartu beharreko neurriei buruzko edukiak erantsi ditu, eta erreferentzia egin die akordioaren jarduera-protokoloan jasotzen diren ildoei.

Era berean, eta udalek berek eskatuta, prestakuntza-**ikastaro** bana antolatu du Tolosako eta Laudioko **udaltzaingoentzat**, tratu txarrak eta sexu-erasoak izaten diren kasuetan

hartu beharreko neurriei buruz. Ikastaro horietan ere akordioaren jarduera-protokoloan jasotzen diren ildoak aipatu dira.

Bidezko kudeaketak egin ditu, Ertzaintzaren komisarietan biktimei **salaketaren kopia** eman dakien; horrela, ez dute zertan errepikatu behar deklarazioa erakunde bakoitzaren aurrean.

Sail horrek, era berean, parte hartu du azaroaren 25 dela eta egin den sentsibilizazioko eta informazioko **erakunde arteko kanpainaren** diseinuan eta finantzaketan, bai eta *etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako **segurtasun-planaren** (2002-2004)* lanketan ere.

EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

Gizarte Ongizaterako Zuzendaritzak kudeatzen dituen laguntzen dekretuan, etxeko tratu txarrei buruzko **esku-hartze programak eta prestakuntza-jarduerak lehenesteko** balioespen-irizpideak sartu ditu. Horren ondorioz, alde batetik, etxeko tratu txarrei buruz jaso diren ikastaro- eta jardunaldi-eskabide guztiak diruz lagundu dira, eta, bestetik, beste 7 diru-laguntza eman zaizkie boluntario-elkarte batzuei, arlo horretan esku hartzeko programak eta ekimenak egin ditzaten.

Gizarte-Zerbitzuen Azpibatzaordearen baitan, HAEEn gizarte-zerbitzuetako profesionalentzat antolatzen dituen **prestakuntza-ikastaroen** diseinuan parte hartu du.

Sail horrek, era berean, parte hartu du azaroaren 25 dela eta egin den sentsibilizazioko eta informazioko **erakunde arteko kanpainaren** diseinuan eta finantzaketan, bai eta *etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako **segurtasun-planaren** (2002-2004)* lanketan ere.

EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

Aldian behin, Atxilotuari Laguntza Emateko Zerbitzuaren (ALEZ) bidez, **berri eman** zaie justizia-administrazioa eta ministerio publikoko organoei, etxeko tratu txarrak eta sexu-

erasoak jasaten dituztenek eduki ditzaketen **zerbitzu osagarri**ei buruz: biktimei laguntzeko zerbitzuak (BLZ), ALEZ eta doako laguntza juridikoko zerbitzuak.

Sailak hainbat **prestakuntza-ikastaro eta -jarduera** antolatu ditu, etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen arloan, batez ere justizia-administrazioan lan egiten duten langileentzat:

- *"Generoko indarkeria"* ikastaroa Gasteizen eman zen.
- *"Adingabeen zigor-erantzukizunaren legea indarrean sartzea"* ikastaroa, berriz, Donostian eman zen, eta hor, besteak beste, erakunde arteko akordioa ere jorratu zen.
- *"Etxeko indarkeriaren arazoa ikuspegi juridikotik"* gaiari buruzko 3 ikastaro ere eman dira gure erkidegoko abokatuen hiru elkargoetan.
- BLZtako langile teknikoek tratatu txarrak jasotzen dituzten emakumeentzako laguntzen arloan eman duten prestakuntza.
- Auzitegiko medikuntzaren arloko ikerketari eta frogari buruzko egonaldi bat egin zen Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundean.
- Generoko indarkeriari buruzko hainbat sentsibilizazio-ikastaro eta delitu bortitzen biktimei buruzko jardunaldi batzuk, giza eskubideak sustatzeko eta babesteko laguntza-programen baitan babestuak.

BLZek **laguntza juridikoa eta psikologikoa** eman diete etxeko tratatu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituztenei, eta **etengabeko lotura izan dute polizia-zerbitzuekin**, etxeko indarkeriako eta sexu-erasoko kasuak izan direnean.

Sailak, Legekarien Euskal Kontseiluaren laguntzaz, **lege-laguntzako berariazko txanda** bat sortu du, etxeko tratatu txarrak eta sexu-erasoak izaten diren kasuetarako. Txanda hori hiru lurralde historikoetako abokatuen elkargoen bidez gauzatuko da.

Etxeko indarkeriarekin lotutako **judizio azkarren esperientzia pilotuak** egitea bultzatu du, Bilboko eta Barakaldoko epaitegietan. Gainera, judizio azkar horiek ezartzeko planean, atal berezi bat eskaini die etxeko tratatu txarren kasuei.

Abenduaren 30eko 319/2002 Dekretua onartu du. Dekretu horrek **kontratazorako eta autoenplegurako laguntzak** emateko beste dekretu batzuk aldatzen ditu, eta, laguntzen onuradunen talde gisa sartzeko dituzten etxeko indarkeria jasaten dutenak.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren laguntzaz, justizia-administrazioiko **etxe**ko **indarkeriari buruzko azterlan** bat agindu dio Zaragozako Unibertsitateari.

Giza eskubideen arloko kanpaina bat egin du, eta hor erreferentzia berariazkoa egin zaio generoko indarkeriari eta indarkeria horren biktimei. Azaroaren 25eko **erakunde arteko kanpainaren** finantzaketan ere parte hartu du, bai eta etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako **segurtasun-planaren** lanketan ere (2002-2004).

Auzitegi

Medikuntzako Euskal Erakundearen bidez, gure erkidegoko auzitegi

medikuei **zabald**u **zaie** erakunde arteko **akordioa**.

Erakunde horrek jarduerako eta datu-bilketako **auztegi**ko **protokolo mediko** berariazkoak egin ditu **etxe**ko **indarkeri**ako kasuetarako. Era berean, protokolo berri bat egin du **sexu-erasoak eta -abusoak** jasan dituztenen azterketetarako. Hori guztia erkidego osorako jarduera-irizpide uniformeak ezartzeko.

Euskal Herriko Unibertsitateko irakaskuntza-unitateetan, **Auzitegi-Medikuntza** ikasgaiaren programan, etxe

ko indarkeriari buruzko **mintegi** bat ere sartu da, eta hor erakunde arteko akordioarekin lotutako arazoak jorratu dira.

EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA

Sare publikoko eta pribatuko osasun-zentro guztien artean **banatu** du etxe

ko tratu txarren aurkako **osasun-protokoloa**, bai eta historia klinikoaren erdua eta historia kliniko hori epaitegira bidaltzeko gutuna ere. Osakidetza/EOZko eta beste erakunde eta organismo batzuetako osasunzainei ere bidali zaizkie dokumentu horiek.

Protokoloa aurkezteko jardunaldiak egin ditu osasun-eskualdeetan.

Osakidetza

Kalitate Zuzendariordetzaren bidez, **metodologia** bat diseinatu du, protokolo horren banaketa zein protokoloaren betetze-maila eta kalitatea **ebaluatzeko**.

Informazio-bilketa bat egin da, osasun-protokoloaren zabalkunde-mailari eta aplikazioari buruz, bai eta protokolo hori hobetzeko ohar batzuk ere.

Sail horrek, era berean, parte hartu du azaroaren 25 dela eta egin den sentsibilizazioko eta informazioko **erakunde arteko kanpainaren** diseinuan eta finantzaketan, bai eta *etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako **segurtasun-planaren** (2002-2004)* lanketan ere.

EMAKUNDE / EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Lehendakaritzarekin batera, **akordioaren** 3.500 **ale** argitaratu ditu, eta inplikaturako profesionalen artean **banatu** ditu.

Akordia, **Emakunderen web-orrian** sartu du, bai eta segimendu-batzordetik eta erakunde arteko talde teknikotik bultzatu diren pertsona partaideei, eginkizunei eta jardueri buruzko informazioa ere.

“Emakunde” aldizkariaren 49. zenbakian, akordioari eta segurtasun-planari buruzko informazioa sartu du, eta harremanak izan ditu **Eusko Jaurlaritzaren web-orriaren** arduradunekin, 2003an akordioaren edukiak web-orri horretan sar daitezen.

HAEEn laguntzaz eta Gizarte-Zerbitzuen Azpibatzerdearen baitan, gizarte-zerbitzuetako profesionalentzako hainbat **prestakuntza-ikastaroren** diseinua bultzatu eta koordinatu du.

Erakunde arteko akordia zabaltzeko **sentsibilizazioko eta prestakuntzako jarduera** hauetan **parte hartu** du:

- *“Adingabeen zigor-erantzukizunaren legea indarrean sartzea”* ikastaroan; ikastaro hori Donostian antolatu zuen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren laguntzaz.
- *“Etxeko indarkeriaren arazoa ikuspegi juridikotik”* gaiari buruzko 2 ikastarotan; ikastaro horiek Legekariaren Euskal Kontseiluak antolatu zituen, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren laguntzaz, eta Bilbon eta Gasteizen eman ziren, hurrenez hurren.
- *“Generoko indarkeria”* jardunaldietan; BETA elkarteak Gasteizen antolatu zituen ikastaro horiek.

Azaroaren 25 dela eta egin den sentsibilizazioko eta informazioko **erakunde arteko kanpaina** bultzatu, koordinatu eta finantzatu du, eta *etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako **segurtasun-planaren** (2002-2004)* lanketa eta onarpena bultzatu eta koordinatu du.

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Barne-zirkular bat landu du, akordioan hartutako konpromisoei buruzko informazioa emateko bere plantilla guztiari, bai eta erakundearen beraren jarduera-ildoei eta baliabideei buruz, eta baliabideetara nola irits daitekeen.

Erakunde arteko **akordioa zabaltu** die Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko langile guztiei, bai eta inplikatura dauden Arabako gainerako erakundeei, eta, bereziki, zerbitzu espezializatuei.

Generoko indarkeriari buruzko **prestakuntza-plan** bat landu du, eta maila guztietako prestakuntza-ekintzak sartu ditu:

- a) oinarritzko hitzaldien zikloa (4 saio), plantilla guztiarentzat.
- b) zuzenean erlazionatutako langileentzako ikastaro espezializatua, HAEEn bidez antolatua eta Gizarte-Zerbitzuetako Azpibatzerdearen baitan.
- c) Diru-laguntzak Arabako hainbat erakunderi, gai horri buruzko mintegiak eta jardunaldiak antolatzeko. Besteak beste: Kriminologoen Euskal Elkarteak eta Arabako Itxaropena Elkarteak burutu dituzten prestakuntza-ekintzak.
- d) Gizarte Ongizaterako Sailak bi jardunaldi antolatu ditu, Arabako herritarrentzat.

*etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako **segurtasun-planaren** (2002-2004)* lanketan ere parte hartu du.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Azalpeneko triptiko bat landu eta zabaltu du, akordioak hartzen duen arlo bakoitzean (osasuna, polizia, justizia, abokatuen elkarteak eta gizarte-zerbitzuak) esku hartzeko ildoak azaltzeko.

Erakunde arteko akordioaren laburpen bat bidali du aldundiaren **“Aldundia” aldizkarira** 2003an argitara dadin, eta akordioa aldundiaren **web-orrian** ere sartu du.

Gizarte-Zerbitzuen Azpibatzerdearen baitan, HAEEK gizarte-zerbitzuetako profesionalentzat antolatzen dituen **prestakuntza-ikastaroen** diseinuan parte hartu du.

Erakunde arteko akordioa ezagutarazteko **sentsibilizazioko eta prestakuntzako jarduerak** hauetan **parte hartu** du:

- *"Etxeko indarkeriaren arazoa ikuspegi juridikotik"* gaiari buruzko ikastaroa; ikastaro hori Legekarien Euskal Kontseiluak antolatu zuen Bilbon, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak Sailaren laguntzaz.
- XXI. Mendeko Emakumeei buruzko III. Jardunaldiak.

Familien elkargunerako programa berri bat sortu du, eta **arreta psikologikoko** eta esku-hartze familiarreko **zerbitzuaren estaldura handitu du** hainbat kasutarako (etxeko tratatu txarrak, sexu-erasoak eta bikoteen haustura-prozesuetatik sortzen diren arazo psikologikoak).

Sail horrek, era berean, parte hartu du azaroaren 25 dela eta egin den sentsibilizazioko eta informazioko **erakunde arteko kanpainaren** diseinuan eta finantzaketan, bai eta *etxeko tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako segurtasun-planaren (2002-2004)* lanketan ere.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Erakunde arteko akordioa aldundiaren **web-orrian** sartu du.

Gipuzkoako udalerrietako **gizarte-langileak prestatu ditu**, gizarte-zerbitzuen arloko zereginak zehazten dituen dekretuari eta etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoaren arloan duen eraginari buruz, gizarte-zerbitzuen sarerako jarduerak-prozedura eta -protokolo berariazkoak zehazteko.

Gizarte-Zerbitzuen Azpibatzerdearen baitan, HAEEK gizarte-zerbitzuetako profesionalentzat antolatzen dituen **prestakuntza-ikastaroen** diseinuan parte hartu du. Era berean, ikastaro horiei buruzko informazioa bidali du Gipuzkoako udal guztietara.

"Etxeko indarkeriaren arazoa ikuspegi juridikotik" gaiari buruzko **ikastaroan parte hartu du**; ikastaro hori Legekarien Euskal Kontseiluak antolatu zuen Donostian, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak Sailaren laguntzaz.

Aldundiak, era berean, erakunde arteko akordioari buruzko **aholkularitza teknikoa** eman die udaletako gizarte-langileei eta emakume-elkarteei, eta **detekzioaren eta jardueraildoen gida** bat landu du, etxeko tratatu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen diren kasuetarako. Gida horri, besteak beste, gizarte-zerbitzuen arloari buruzko jardueraprotokoloa erantsi zaio.

Etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen biktimei buruzko **informazio-bilketa** bateratu du, erakunde arteko akordioan ezartzen den ereduaren arabera.

Sail horrek, era berean, parte hartu du azaroaren 25 dela eta egin den sentsibilizazioko eta informazioko **erakunde arteko kanpainaren** diseinuan eta finantzaketan, bai eta *etxeko tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako **segurtasun-planaren** (2002-2004)* lanketan ere.

FISKALTZA

Erakunde arteko **akordioa** Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Fiskaltzaren mendeko diren fiskal guztien artean **zabald**u du.

“Etxeko indarkeriaren arazoa ikuspegi juridikotik” gaiari buruzko ikastaroan **ponentzia** bat eman du; ikastaro hori Legekarien Euskal Kontseiluak antolatu zuen Bilbon, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren laguntzaz.

*Etxeko tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako **segurtasun-planaren** (2002-2004)* lanketan parte hartu du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko fiskal guztien artean zabald

LEGEKARIEN EUSKAL KONTSEILUA

Hiru elkargoetako bakoitzaren **buletinetan** erakunde arteko akordioari buruzko informazioa **argitaratu** du.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren laguntza, *“Etxeko indarkeriaren arazoa ikuspegi juridikotik”* gaiari buruzko **hiru ikastaro** antolatu ditu, bat elkargo bakoitzean, eta

ikastaro horiek ezinbesteko baldintza izan dira berriazko ofiziozko txandan izena emateko eta irauteko.

Legekarien Euskal Kontseiluaren laguntzaz, **lege-laguntzako berriazko txanda** bat sortu du, etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak izaten diren kasuetarako. Txanda hori hiru lurralde historikoetako abokatuen elkargoen bidez gauzatuko da.

Foru-aldundiekiko eta Eusko Jaurlaritzarekiko **lankidetzan sakondu** du, batez ere Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzarekikoan.

Era berean, parte hartu du azaroaren 25 dela eta egin den sentsibilizazioko eta informazioko **erakunde arteko kanpainaren** diseinuan, bai eta *etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako **segurtasun-planaren** (2002-2004)* lanketan ere.

EUSKADIKO SENDAGILE ELKARTE NAGUSIA

Elkarteko kide guztiei **ezagutarazi** die erakunde arteko akordioa eta osasun-protokoloa hor daudela, bai eta horri erantsitako dokumentu hauek ere: *“tratu txarreatatik txosten medikorako eredia”* eta *“epategira bidaltzeko txostenaren eredia”*.

Era berean, informazio hori errepikatu du Kontseilu horretatik egiten diren **aldian behingo komunikazioetan**, eta interesatuen eskueran jarri ditu dokumentu horiek elkartearen egoitzetan.

Era berean, parte hartu du azaroaren 25 dela eta egin den sentsibilizazioko eta informazioko **erakunde arteko kanpainaren** diseinuan, bai eta *etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako **segurtasun-planaren** (2002-2004)* lanketan ere.

B) JARDUERA PROTOKOLOAREN BETETZE-MAILARI BURUZKO BALIOESPENA

EUSKO JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

"Jarduera-protokoloa erakunde arteko akordioan jasotzen da, eta hainbat arlotako jardunak biltzen ditu (osasuna, polizia, justizia eta gizarte-zerbitzuak), bai eta abokatuen elkargoen jarduna ere. Lehendakaritzak arlo horietan zuzenean jarduten ez duenez, ezin dezake balioespen beregainik egin, sektore horien eman dezaketen informaziotik beregaina den informaziorik".

EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILA

"Erakunde arteko akordioan jasotzen den jarduera-protokoloak Segurtasun sailburuordeak etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei buruz eman zituen polizia-jarraibideetan du oinarria, eta, oro har, jarduera-prozedura horiek segimendua eta betetze-maila egokiak izan dira."

EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

"Protokolo horretan bilatzen diren –eta adierazten diren– xedeak asmo handikoak diren arren, hasierako datu positibo gisa nabarmendu dezakegu bertan parte hartzen duten organismo guztiek borondate ona erakutsi dutela. Azpimarratu behar dela behar-beharrezkoa zela hasieratik koordinazioa eta jarduera-irizpide uniformeak ezartzea, eta lan hori ez daiteke neurtu estatistikoki. Izan ere, lan horrek ez du aurrekonturik ere, baina aldez aurretikoa eta guztiz beharrezkoa da ondoren esku hartzeko.

Koordinazio-lan hori oso modu positiboan burutu da 2002an, bai auzitegiko medikuen arloan, bai gainerako eragile juridikoen artean ere, eta are gai horretan inplikaturako gizarte-mugimenduen mailan ere. Izan ere, mugimendu horiek esku hartzeko erreferentziak errazago aurki ditzakete orain administrazioan, generoko indarkeriaren arazoari aurre egiterako orduan.

Eskatzen ziren zenbait zerbitzu berri abian dira dagoeneko, hala nola doako laguntza juridikoko berariazko txanda, generoko indarkeriako kasuetarako. Txanda hori orain dela gutxi ezarri da, eta orain arte oso positiboa izan da eragindako emakumeentzat.

Bestalde, apatzekoa da justiziako langileen eta esku hartzen duten gainerako eragileen (abokatuak, epaileak, fiskalak, etab.) inplikazioa, protokolo hori benetan abian jartzeko orduan. Hori dela eta, sentsibilizazio gero eta handiagoa antzematen da, sor litezkeen egoera arazotsuei profesionalki aurre egiterako orduan".

EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA

Hona hemen Osakidetza/EOSko osasun-zentro guztiei –lehen mailako arretakoei eta ospitaleei– 2002ko betetze-mailari buruz bidali zaien inkestaren emaitzak. Prozesuaren hasieran gaudela kontuan izanik, betetze-maila onargarria dela dirudi.

Zentro horretara tratatu txarren kasurik iritsi bada, etxeko tratatu txarren aurkako osasun-protokoloan adierazten diren ildoei jarraitu zaie?:

	Kopurua	%
<i>Bai, kasu guztietan</i>	29	15
<i>Bai, zenbait kasutan</i>	21	11
<i>Ez</i>	4	2
<i>Ez da iritsi kasurik</i>	101	52
<i>Ez daki</i>	30	16
<i>Ez du erantzun</i>	8	4
GUZTIRA	193	100

EMAKUNDE / EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

"Emakunde erakunde bultzatzailea da, eta ez die ematen zuzeneko arretarik etxeko tratatu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituztenei; hori dela eta, ez dauka nahikoa daturik protokoloaren betetze-mailari buruzko benetako balioespenik egiteko. Ez dauka daturik biktima horien arretan zuzenean inplikaturako profesionalei buruz, bakoitzari dagokion esku-hartze eremuan: osasuna, polizia, justizia, abokatuak elkargoak eta gizarte-zerbitzuak.

Hala ere, datu gehiago ezagutzeko asmoz (nolako neurriak burutu diren erakunde arteko akordioa aplikatzeko, nork burutu dituen, nori zuzendu zaizkion, zenbateko kostua izan

duzen, etab.) Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Sailari, EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboko III. Planaren baitan, berariazko datu-ustiapen bat egiteko agindu zaio, eta behin amaitzen denean, segimendu-txostenari erantsiko zaio”.

ARABAKO FORU ALDUNDIA

“Oro har, uste dugu positibotzat balioetsi daitekeela jarduera-protokoloaren betetze-maila, Arabako Foru Aldundiaren aldetik.

Hala ere, uste dugu beharrezkoa dela:

- a. Koordinazio-bilerak bultzatzea, protokoloaren betetzean aurkitzen diren zailtasunak eta oztopoak ezagutzeko.
- b. Jarduteko oinarritzko ildo batzuk diseinatzea, oinarritzko gizarte-zerbitzu bakoitzean, eta horrela beren jarduna landa-alde bakoitzaren premietara egokitu ahal izaten dezaten”.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

“Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeen arretan dihardugun profesionalek (Emakumea eta Familia Zerbitzukoek) baieztatu dezakegu akordioa hainbat arlotan bete dela, hala nola:

Gizarte-zerbitzuan - oinarritzko gizarte-zerbitzuetara joaten den emakumearen arreta osoa jasotzen du. Haren egoera emozionala zaintzen da, eta dauden baliabideei buruzko informazioa eta aholkularitza ematen zaizkio. Akordioan aurreikusten diren txostenak betetzen dira, eta zerbitzu espezializatuak behar bezalako lastertasunaz iristen dira.

Emakumea eta Familia zerbitzu espezializatuan - larrialdiko zerbitzu bat dago egoera horretan dauden emakume guztiak hartzeko, beren kargura seme-alabak dituztenak eta ez dituztenak. Emakumeak hartzeko, oinarritzko gizarte-zerbitzuetatik egiten diren eskaera guztiak balioesten dira. Behin emakumea hartuz gero, kasuaren plan banakakoa egiten da, haren egoeran, arazoetan eta baliabideetan oinarrituz.

Eremu judizialan - arlo honetan honako ekintza hauek burutu direla jakin dugu: auzitegiko medikuak egin duen segimendua, Biktimaren Arreta Zerbitzuarekin harremanetan jartzea, prozedura bizkortzea eta ofiziozko doako abokatua izendatzea.

Abokatuen elkargoan - ofiziozko txanda berezia abian jartzea.

Osasun-eremuan - osasun-eremuak, oro har, harreman hurbilagokoa izaten du poliziaren eta oinarritzko gizarte-zerbitzuen eremuekin, eta ez zerbitzu espezializatuarekin (hala nola Emakumea eta Familia Zerbitzuarekin); hori dela eta, haiek dira euren egoeraren hartzaile eta ezagutzaile zuzenekoak”.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

"Nire ustez, Gizartekintzak bete egin ditu 2002. urtean beregain hartu zituen konpromisoak, batez ere udaletako gizarte-zerbitzuei buruzko alderdietan; hala ere, aldaketarako prozesua motela da, eta beste erakunde batzuen jardunak ukitzen ditu, garatu beharreko neurri zehatzetan eragiten baitute. Aritzea eskatzen du. Hala ere, uste dut egokia litzatekeela erkidego mailako ikastaro bat egitea, arloko eragile sozial eta instituzional guztientzat (beren jardunak etxeko tratu txarren eta sexu-erasoaren biktimen arretan eragiten duten eragileentzat, hain zuzen).

Abokatuen elkargoek etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituztenekin burutu behar dituzten jardura juridikoei dagokionez, Gipuzkoan ez dira abian jarri. Horrek mesfidantza eragin du udaletako gizarte-zerbitzuetako profesionalengan, eta Gizartekintzan ere izan du eragina. Izan ere, biktimentzako laguntza juridikoa arautzen duen dekretua onartzen denetik aurrera, laguntza hori justiziaren eremutik babesik ez duten biktimei subsidiarioki lagunduz egingo da”.

FISKALTZA

“Jardura-protokoloaren’ betetze-maila, ikuspegi juridiko-penaletik inplikatura dauden profesionalen aldetik, uste dut behar bezalakoa dela. Izan ere, Ertzaintzak zein udaltzaingoek egiten dituzten atestatueta, modu xehekatuan jasotzen dira salatutako gertakariak. Horretaz gain, etxeko tratu txarren biktimen eskubideei buruzko informazioa ere jaso da, bai eta prozedura penalerako interesgarriak diren beste inguruabar batzuk ere (dena dela, komenigarria litzateke jasandako erasoaren fotografiak hartzea, betiere biktimaren baimenarekin). Era berean, ospitaleetako larrialdietako zerbitzuek horretarako sortu diren txosten medikoak bete dituzte kasurik gehienetan (etxeko tratu txarren kasuetarako sortu diren txosten medikoak, hain zuzen). Gainera, behar bezalakoa da gizarte-zerbitzuetatik –eta, batez ere, biktimei laguntzeko zerbitzuetatik– arlo honetan

ematen den erantzuna, horrek eragin handia izaten baitu aurrera eramaten diren prozedura penaletan. Azkenik, gertakari bortitz horren aurkako erantzun judiziala gero eta handiagoa da, gaur egun sentsibilizazio-maila handia piztu baita epaileen artean gai horien inguruan”.

LEGEKARIEN EUSKAL KONTSEILUA

“Arlo honetako ofiziozko txandak duela gutxi ezarri dira hiru elkargoetan; hori dela eta, gaur egun ez daiteke balioetsi oraindik protokoloaren betetze-maila. Hala ere, ikusten da oso beharrezkoa dela ofiziozko txanda horiek zabaltzea eta herritarren artean ezagutaraztea, bai eta zuzenean inplikaturako erakundeen artean ere (batez ere, Ertzaintza eta epaitegiak), koordinazio handiagoa ahalbidetzeko”.